



Esp.kodea: 2022PHEL0003
Titularra: PERTSONAL SAILA

Gaia: 2022ko Lanbideren Enplegua
Sustatzeko Programa: 4 Peoi (lore zaintza)

ALDIBATERAKO KONTRATAZIOA

1/ KONTRATAZIOA

LANPOSTUA	PROIEKTUA	JARDUNA	IRAUPEN A
Lorezaintzako 4 peoi	Herriko lorategi publikoetan hobekuntzak egiteko lan taldea, ohiko mantentze lanak errazteko.	% 100	5 hil.

2/ KONTRATATZEKO BALDINTZAK

Hautagaiek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuan lan-eskatzailer gisa alta emanda dauden pertsona langabetuak izatea.
- Deialdia egin eta sei hilabete lehenagoz Arrasaten erroldaturik egotea.
- Ezingo dira kontratatu 2021eko ekitaldirako enplegu-sustapeneko toki-ekintzetarako laguntzen deialdietan edo Gazte Enpleguko 2014-2020 programa operatiboaren esparruan 2021eko ekitaldian kontratatuak izan diren pertsonak.
- B gidabaimena.

3/ HAUTAGAIEN AURRETIKO AUKERAKETA

LANBIDEk egingo du hautagaien aurretiko aukeraketa, ezarritako baldintzen arabera.

4/ HAUTAGAIEN AZKEN AUKERAKETA

Hautagaien azken aukeraketa Udalak egingo du, egokitasun probak eginez eta hautagaiek egiaztatutako merituak baloratuz.

5/ EPAIMAHAIA

Hautaketa prozesuko kalifikazio epaimahaia honela eratuko da:

Epaimahaiburua:

- Udal teknikari bat edo arlo-burua.

Epaimahaikideak:

- Postuari dagokion arloko karrerako funtzionario bat.
- Postuari dagokion arloko karrerako funtzionario bat.
- Udal funtzionario bat, ordezkari sindikalak proposatuta.

Idazkaria:



Esp.kodea: 2022PHEL0003
Titularra: PERTSONAL SAILA

Gaia: 2022ko Lanbideren Enplegua
Sustatzeko Programa: 4 Peoi (lorezaintza)

- Udal funtzionario bat.

6/ INFORMAZIOA ETA KONTSULTAK

Deialdi honi buruz Udalak hartzen dituen erabakiak (oharrak, aurrez aukeratutako hautagaien zerrenda, azterketak edo elkarrizketak egiteko deialdiak, hautaketa proben emaitzak, eta abar) udaleko web orrian argitaratuko ditu (www.arrasate.eus) eta interesdunen eskura jarriko ditu BAZen, Biztanleentzako Arreta Zerbitzuan.

Deialdi honi buruz interesdunek behar duten edozein informazio osagarri jasotzeko, hona jo dezakete:

- **BAZ (Biztanleentzako Arreta Zerbitzua)**

- Arano eta Gartzia maisu-maistra 8
- Tel.: 943 252000
- baz@arrasate.eus

7/ HAUTAKETA ARAUAK

- **Merituak:**

- Euskara: 1 HE egiaztatzea (agiriz edo dagokion proba eginez): 10 puntu.
- 55 urtetik gorakoa izatea: 5 puntu
- Luzaroko langabeak: 5 puntu. Luzaroko langabetzat joko dira Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan lan-eskatzaile gisa izena emanda dauden langabeak, gutxienez 360 egunez kontratazioaren aurreko 540 egunetan.
- Emakumea izatea: 5 puntu.
- Diru-sarrerak bermatzeko errentaren (DSBE) titular edo onuraduna izatea: 5 puntu.
- Legezko ezintasun izaera edukitzea, ehuneko 33koa edo hortik gorako elbarritasun maila batekin, eta bateragarria izatea dagozkion zeregin eta egitekoak betetzearekin: 5 puntu.
- Sei hilabeteko lan eskarmentua lorazaintzako peoi lanetan, edo ikasketak edo praktikaldiak: gehienez 5 puntu.

- **Probak:**

- *Teorikoa:* lanpostuaren funtzioen jakintzari buruz: 0-12 puntura baloratuko da eta gutxienez 6 atera behar da aurrera egiteko.
- *Praktikoa:* lanpostuaren funtzioen jakintzari buruz: 0-38 puntura baloratuko da eta gutxienez 19 atera behar da aurrera egiteko.

- **Hautaketa:** Behin puntuazioaren arabera hautagaien zerrenda osatuta, kontratatuetako bat emakumea izango da.